



Preguntatxo bat
Igelaren banda
Elkar, 2013

Tradizioa modu librean interpretatua

EUSKAL MUSIKA TRADIZIONALA oinarri hartuta, bertsio berriak sortzen dituzte Igelaren bandakoek, konposaketa eta harmonizazio berriak garatzen dituzte. Modu instrumentalean egiten dute beti ere, eta inprobisazioari leku berezia emanez.

2001ean kaleratu zuen taldeak bere lehenengo diskoa, eta 2008 urtera arte hainbat kontzertu eskaini zituen Euskal Herriko zenbait txokotan. Zuzeneko emanaldi hauetarako leku txikiak, kultur etxeak, horretarako prestaturiko tabernak aukeratzin zituzten, taldeak bilatzen zuen gertutasuna eta naturaltasuna islatuko zituzten gune aproposak. Harrezkero taldeak inpas- se moduko bat bizi izan zuen 2011n Zarauzko Kafe Toreroko eszenatokira igotzeko gonbitea jaso zuten arte. Kontzertu horren ostean, beren ibilbide berriari heldu zioten. Hasier Oleaga bateria-jotzailearen eta Amaur Cajaraville- ren kontrabaxuaren ekarpenekin errepertorio berria osatzen joan ziren eta disko berri bat argitaratzeko ideia garatu zuten. Izan ere, hauxe da Bixente Martinez konpositore, moldatzaile eta instrumentistaren ustean, taldea ezagutarazteko modurik egokiena. Esperientzia handiko musikariez osatutako talde honek, abesti tradizionalak modu librean egokitu eta garatzen jarraitu du. Maitasun handiz hartzen dituzte jatorrizko melodiak baina errespetu gutxiarekin egokitzen dituztela dio Bixente Martinezek. Euskal Herrian sortu diren abestiak berreskuratzerakoan euskal ondarea ere ekartzen dute gurer, doinu guztiek baitute historia, jatorria eta ibilbidea.

Diskoa osatzen duten 13 abestien artean badira beste zenbait herrialdeetako kantak. Diskoari izenburua ematen dion *Preguntatxo bat* abestiak, adibidez, Arantzazuko erromesaldietan abesten ziren koplei egiten die erreferentzia. Aita Donostiaren kantutegitik berreskuratutako *Gure Aita* abestian, San Joseren bertuteak goraiatzin dira eta kantu hori munduko aita zintzo guztiei eskaini nahi izan die taldeak. Nafarroa aldera joz, Maiatzaren 1ean



Baztan aldean abesten ziren kopletan oinarritua dago *Maiatzeko erregina*. Bizkaia eta Arabako mugetan dagoen Otxandio ingurukoa da, berriz, *Okerreko bideetik* ume kanta. Antza, aspaldi batean astoak eta asto zaintzaileak ibiltzen ziren kostatik Errioxara arraina eramaten, eta bueltan Errioxatik kostara ardoa ekartzen. Ibilbide honetan ardoarekin, astoarekin eta asto zaintzailearekin gertatzen zena kontatzen da.

Abesti hauen guzien artean, gure artean oso ezagunak diren bi kanta nabarmentzen dira: Xabier Leteren *Habanera* eta Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak*. Bi kantari handi horiek omendu nahi izan dituzte, horretarako beren estiloarekin bat datozen abesti hauek hautatuz.

Formatu txikiko talde instrumental honek, inprobisatzeko duen gaitasunaz baliatuz, soinu erreala, zuzena eta hurbila ekartzen digu. Igelaren banda gutizi modura bizi dute taldekideek eta gutizi modura eskaintzen dute beren musika.

Ez da ogibide erraza musikariarena edo sortzailearena, baina horretara dedikatzen denak badu bizimodu horri aurre egiteko ezinbestekoa den grina.

Olatz Korta

